

XEDAPEN OROKORRAK

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN SAILA

5115

AGINDUA, 2025eko azaroaren 24koa, Mugikortasun Jasangarriaren sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan turismo-automobiletan egiten den bidaiarien hiriarteko garraio publikoaren tarifa berriak onartzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan turismo-automobiletan egiten den bidaiarien hiriarteko garraio publikoaren tarifen zenbait osagaien prezioak aldatu direnez, indarrean dauden tarifak ere igotzea komeni da.

Ondorioz, Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 382/2024 Dekretuaren 3.1 artikulua ematen didan eskumena erabiliz, eta Bidaiariak hiri barruan eta hiriartean turismo-automobilez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen ekainaren 29ko 2/2000 Legearen 3. eta 17. artikulua kontuan izanik, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Gidaria barne dela bederatzi plaza edo gutxiago eta VT motako garraio-baimena duten automobiletan egindako bidaiarien hiriarteko garraio publikorako gehieneko tarifa hauek baimentzea, balio erantsiaren gaineko zerga barne dela:

III. tarifa (egunekoa 07:00etatik 22:00etara).

	Euro
- Kilometroko	0,802402
- Itxaronaldia, orduko	22,04
- Gutxienekoa ⁽¹⁾	7,53

⁽¹⁾ Gutxienekoa horrek 1.500 metroko ibilbidea hartzen du.

IV. tarifa (jaiegunetakoa eta gauekoa 22:00etatik 07:00etara).

	Euro
- Kilometroko	0,887363
- Itxaronaldia, orduko	23,17
- Gutxienekoa ⁽²⁾	8,27

⁽²⁾ Gutxienekoa horrek 1.500 metroko ibilbidea hartzen du.

2. artikulua.– Agindu honen 1. artikuluan adierazitako gehieneko tarifak ez dira aplikatuko gidari-zerbitzua barne dela alokatutako automobilekin errepidez egiten diren hiriarteko garraio publikoetan.

3. artikulua.– Zerbitzu bat kontratatzeak automobil osoa alokatzea ekarriko du, eta zerbitzutat, kontrakorik berariaz hitzartu ezean, ibilbide motzena hartuta abiapunturainoko zirkuitu itxia joko da.

Ordainpeko bide-azpiegitura bat erabiliz gero, helmugara iristeko ibilbideko bidesaria erabiltzailerak ordainduko du.

4. artikulua.– Lehenengo artikuluan jasotako tarifak taximetroak ezarritakoaren arabera kobratu beharko dira, ekainaren 29ko 2/2000 Legearen 17. artikuluan, urriaren 15eko 243/2002 Dekretuaren bidez onarturiko 2/2000 Legearen Erregelamenduaren 32. artikuluan eta Garraio eta Herri Lanetako sailburuaren 1990eko urriaren 10eko Aginduan xedatutakoari jarraituz, aipatu araudi horretan ezarritako salbuespenekin.

Taximetroa urriaren 15eko 243/2002 Dekretuaren bidez onarturiko 2/2000 Legearen Erregelamenduaren 44. artikulua xedatutakoaren arabera jarriko da martxan.

Urriaren 15eko 243/2002 Dekretuaren 32.1 artikuluan, 4.h) artikuluekin lotuta, xedatutakoa kontuan izanik, eta zerbitzuaren erabiltzailerak hala eskatuta, taxi-gidariak kasuan kasuko ordainagiria egin beharko dute horretarako jarria izango duten gailua erabiliz.

5. artikulua.– Baimena ematen da, tarifa aldatzeko ordua edo eguna iristen denean, III. tarifatik IV. tarifara, edo alderantziz, automatikoki aldatzen diren taximetroak erabiltzeko.

6. artikulua.– Agindu honen 1. artikuluan ezarritako IV. tarifa aplikatzeko, jaieguntzat hartuko dira igandeak eta Autonomia Erkidegoko eta Tokiko araudiaren arabera jaiegun direnak, bai eta larunbatak eta abenduaren 24a eta 31 ere.

7. artikulua.– Agindu honetan xedatutakoa betetzen ez bada, ekainaren 29ko 2/2000 Legean ezarritakoaren arabera zigorrak jarriko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Indargabetu egiten da Mugikortasun Jasangarriaren sailburuaren 2024ko azaroaren 29ko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoan turismo-automobiletan egiten den bidaiarien hiriarteko garraio publikoaren tarifa berriak onartzeko dena.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Baimena ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Mugikortasun Jasangarri-rako Estrategiaren zuzendariari agindu hau garatzeko xedapenak emateko.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 24.

Mugikortasun Jasangarriaren sailburua,
SUSANA GARCÍA CHUECA.